

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEKO ALDIZKARIAK ARGITALPENEI BURUZKO KODE ETIKOA ETA JARDUNBIDE EGOKIAK

Vianako Printzea Erakundeko aldizkariak (*Príncipe de Viana, Fontes Lingvae Vasconvm, Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* eta *Trabajos de Arqueología Navarra*) argitalpen akademikoak dira, eta komunitate zientifikoarekin konpromiso serioa dute, argitaratutako artikuluen etika eta kalitatea bermatzeari eta haien edukia eta osotasuna babestu eta errespetatzeari dagokienez. Kode etiko honek **Aldizkari zientifikoan editoreentzako jokabide eta jardunbide egokien kodea** du oinarritzat, Argitalpenen Etika Batzordeak (*Committee on Publications Ethics, COPE*) ezarritakoa. Argitalpenean parte hartzen duten alderdi guztiek (egileek, zuzendariak eta Idazketa Kontseiluak eta Nafarroako Gobernuak, argitaratzen duen erakundea den heinean) dokumentu honetan jasotako printzipio guztiak onartu eta errespetatu behar dituzte. Kode etikoan jasotzen ez den gai oro COPEren kodearen arabera ebatziko da, eta kode osagarritzat hartuko da, arautzean.

1. ALDIZKARIAREN ZUZENDARIEN ETA IDAZKETA KONTSEILUAREN EGINBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Argitalpen erabakiak

Aldizkariara bidaltzen diren artikulua guztietan, berdinen arteko berrikuspena egingen da, eta artikulua jorratutako gaien aditu diren bi pertsonak aztertuko dute gutxienez. Itsu bikoitzeko sistema erabiliko da: Idazketa Kontseiluak ebaluazioen inpartzialtasuna eta objektibotasuna bermatuko ditu, eta egoten ahal diren interes gatazkak saihestu. Aldizkariaren zuzendariak aztertu eta erabaki behar dute zer artikulua argitaratu. Hala, artikulua onartu edo ukatuko dituzte, adituek egindako ebaluazio txostenen eta edukiak komunitate zientifikoarentzat duen garrantziaren arabera. Zuzendariak Idazketa Kontseiluari edo ebaluatzaileei aholkua eskatzen ahal diete, artikulua onartu ala ukatu erabakitzeko.

Idazketa Kontseiluak egileei jakinaraziko die bere erabakia, behar bezala arrazoituz. Artikulua berrikusi behar bada, hobetzen ahal diren puntuak adieraziko dira. Egileek artikulua bertsio berri bat bidali beharko dute, ebaluazio txostenen eskakizunak eta iradokizunak betez. Artikulua onartzeko edo ukatzeko azken erabakia bertsio berria jaso ondoren hartuko da.

Inpartzialtasuna eta independentzia

Artikuluak ebaluatzeko prozesuak bermatzen du horien gainean hartzen diren erabakiak objektiboak eta bidezkoak direla. Izan ere, oinarritzat hartzen dira meritua akademikoak (garrantzia, originaltasuna, zorrotasuna eta azalpenen argitasuna) eta aldizkariaren hartzailerik den komunitate zientifikoarentzat eta aldizkariaren argitalpen ildoarentzat duen garrantzia soilik. Ez da ezaugarri pertsonalen, orientazio politiko, sexual edo erlijiosoaren, jatorri geografiko edo etnikoaren edo egileen bestelako baldintza zehatzen araberako bereizkeriarik egiten.

Nafarroako Gobernuak ez du inolako eraginik artikulua bat argitaratzeko edo ez argitaratzeko erabakian, eta beste gobernuak edo aldizkariarekin zerikusirik ez duten erakundeek ere ez. Aldizkariaren zuzendariak dute argitalpenen edukien eta horiek argitaratzeko epeen gaineko aginpide osoa.

Konfidentzialtasuna

Ebaluaziorako jasotzen diren artikulua isilpeko materialtzat hartuko dira, eta ez da hor jasotako informazioa ezagutzera emanen, ezta zuzendariak edo Idazketa Kontseiluak bestelako hirugarrenekin eztabaidatuko ere, egileek baimena eman ezean.

Hedapena eta interes gatazkak

Zuzendariak eta Idazketa Kontseiluak isilpean mantenduko dute argitaratu gabeko artikuluen informazioa eta ez dute beren ikerlanetarako edo mesederako erabiliko, egileek idatziz eta berariaz baimena eman ezean. Zuzendariak eta Idazketa Kontseiluko kideek ez dute artikulua ebaluatuko, interes gatazkak badituzte haien egileekin edo artikuluei lotutako enpresekin edo erakundeekin lehian edo lankidetzan aritzen direlako edo haiekin beste konexioren bat dutelako. Kasu horietan, interes gatazkarik ez duen Idazketa Kontseiluko beste kide batek berrikusiko du artikulua, eta hark hartuko ditu dagozkion erabakiak.

Lankidetzak ikerlanetan

Zuzendariak eta Idazketa Kontseiluak, artikulua argitaratzen duen erakundearekin (Nafarroako Gobernuak) batera, neurriak hartuko ditu, uste badu argitaratu den edo aldizkarira bidali den artikulua batean etikoak ez diren jardunbideak izan direla. Artikulu baten jokabidea etika gutxikoa izan dela esaten duten salaketa guztiak ikertu behar dira, nahiz eta zenbait urte igaro argitaratu zenetik. Aldizkariak *Committee on Publication Ethics* (COPE) batzordearen diagramei ([flowcharts](#)) jarraitzen die, jardunbide okerrak egon direla susmatzen duenean. Ikerlanean ondorioztatzen bada jokabide bidegabeak izan direla, honako neurri hauek hartuko dira, besteak beste: egileekin eta ikerlanak egiteko lantoki dituzten erakundeekin harremanetan jartzea, eta zuzentzeko edo atzera egiteko oharra argitaratzea aldizkarian.

2. EBALUATZAILEEN EGINBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNA

Argitalpen erabakietan laguntzea

Berdinen arteko berrikuspenak erabakitzen laguntzen die zuzendariari eta Idazketa Kontseiluari, eta artikulua hobetzen laguntzen ahal du, egileekin izaten diren harremanei esker. Berdinen arteko berrikuspenera funtsezkoa da komunikazio akademikoan eta metodo zientifikoan.

Puntueltasuna

Alditu bati artikulua bat berrikusteko gonbitea egiten zaionean, hark uste badu ez dagoela horretarako kualifikatuta edo badaki ezin izan den duela txostena garaiz bidali, Idazketa Kontseiluari jakinarazi beharko dio lehenbailehen, eta gonbiteari uko egin.

Konfidentzialtasuna

Jasotako original guztiak isilpeko dokumentuak dira eta era horretara tratatuko dira. Ez zaizkie hirugarrenei erakutsiko, zuzendariak baimendu ezean (ezohiko egoera zehatzetan baino ez du halakorik eginen). Konfidentzialtasuna mantentzeko beharra artikulua ebaluatzeari uko egin dioten ebaluatzaileei ere aplikatzen zaie.

Objektibotasuna

Ebaluazioek objektiboak izan behar dute, eta iruzkinak argitasunez eta modu arrazoituan azaldu behar dira, egileek artikulua hobetzeko erabili ahal izan ditzaten. Ez da egokia kritika pertsonalak egitea.

Iturriak aitortzea

Ebaluatzaileek egileek aipatu ez dituzten lan argitaratu adierazgarriak identifikatu behar dituzte. Aurreko argitalpenetan agertu diren edukien aipamenetan edo horietatik eratorritakoetan, dagokion aipua idatzi behar da. Halaber, ebaluatutako artikulua antzekotasun edo kointzidentzia nabarmenak baditu ebaluatzaileek ezagutzen duten beste artikuluren batekin (argitaratua nahiz argitaratu gabea), jakinarazi behar dute hori.

Hedapena eta interes gatazkak

Ebaluatzaileak interes gatazkarik badu egileekin edo artikuluekin lotutako enprekin edo erakundeekin lehian edo lankidetzan aritzen delako edo haiekin bestelako konexioa duelako, aldizkariaren zuzendariei jakinaraziko die hori, eta ez du artikulua ebaluatuko.

Ebaluatzaileak ez du argitaratu gabeko artikuluen informazioa bere ikerlanetarako edo mesederako erabiliko, egileek idatziz eta berariaz baimena eman ezean. Eskakizun hori artikulua ebaluatzeari uko egin dioten ebaluatzaileei ere aplikatzen zaie.

3. EGILEEN EGINBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNA

Informazioaren estandarrak

Ikerlan originalen egileek zorrotasunez emanen dute egindako lanaren eta emaitzen berri, eta lanaren garrantzia objektibotasunez azaldu.

Berrikuspen artikuluek zehatzak, objektiboak eta osoak izan behar dute, eta, "iritzi" editorialaren kasuan, argi adierazi behar da iritzia dela. Iruzurrekoak edo nahita zehaztugabeak diren adierazpenak ez dira jokabide etikotzat hartzen eta onartezinak dira.

Datuak eskuratzea eta gordetzea

Haien ikerlanaren datu primarioak emateko eskatzen ahal zaie egileei originalarekin batera, berrikusteko asmoz, eta datuak publikoki erabilgarri jartzeko prest egon behar lukete, ahal bada. Nolanahi ere, egileek bermatu behar dute beste profesional adituek datuak eskura izanen dituztela arrazoizko epe batez, horiek argitaratu ondoren, baldin eta parte-hartzaileen konfidentziasunak eta jabetza eskubideek datuak argitaratzea eragozten ez badu.

Originaltasuna eta plagioa

Egileek bermatuko dute artikulua eta haiekin lotutako materialak originalak direla edo ez dutela egile eskubiderik urratzen. Beste pertsona batzuen lanak erabiliz gero, behar bezala aipatu behar dira. Egiletza partekatua bada, egileek justifikatu behar dute ukitutako egile guztiak erabat ados zeudela eta ez dela aurretiaz aurkeztu edo beste hedabide batean argitaratu.

Plagioa era askotakoa izaten ahal da: beste pertsona baten lana norberarena balitz bezala aurkeztea, zati nabarmenak kopiatzea edo parafraseatzea egilea aipatu gabe edo beste pertsona batzuen ikerketen emaitzak bereganatzea. Plagioa, edozein motakoa dela ere, ez da jokabide etikoa eta onartezina da. Artikulu batean antzematen bada plagioa egon dela edo iruzurrezko edukiak daudela, aldizkaritik ezabatuko da (argitaratu bada dagoeneko) edo ez da argitaratuko. Kasu horietan, aldizkariak lehenbailehen hartuko ditu neurriak.

Argitalpen/aurkezpen anizkoitza, bikoitza, errepikatua edo aldi berekoa

Artikulu batek baino gehiagok funtsean ikerlan bera deskribatzen badute, ez dira argitalpen batean baino gehiagotan agertu behar. Hortaz, egileek ez dituzte jada argitaratu diren artikulua bidali behar. Ez da etikoa original bat aldizkari batera baino gehiagotara aurkeztea, argitaratu dadin, eta jokabide onartezina da.

Iturriak aitortzea

Beste pertsonen lana behar bezala aitortu behar da. Egileek aipatu egin behar dituzte ebaluatu beharreko artikulua prestatzerakoan zer argitalpenek izan duten eragina. Pribatuan (elkarrizketetan, gutunerian, hirugarrenekin eztabaidatzean edo zerbitzu konfidentzian) lortutako informazioa ezin da erabili, iturriak idatziz baimendu ezean.

Egiletza

Aurkeztutako lana sortzean, diseinatzen, gauzatzean edo interpretatzean ekarpen nabarmena izan dutenak baino ez dira egile izanen. Ekarpen nabarmena egin duten pertsona guztiak egilekide gisa agertu behar dira. Proiektuaren alderdi zehatzetan parte hartu duten pertsonak laguntzailatzat aitortu behar dira. Testua bidaltzen duen pertsonak ziurtatu behar du egilekide guztiak izaera horrekin agertzen direla, eta ez dela egilekide ez den inor aipatzen. Gainera, egiaztatu behar da egilekide guztiak onartu dutela artikulua azken bertsioa, eta ados daudela argitaratzeko aurkeztearekin.

Hedapena eta interes gatazkak

Egile guztiak originalean adierazi behar dute artikulua emaitzetan edo interpretazioan eragiten ahal duen interes gatazkarik dagoen. Proiektua finantzatu duten iturri guztien berri eman behar da. Interes gatazkak dira, besteak beste: lan kontratuak, aholkularitzak, akzioak izatea, ordainsariak, adituen lekukotza ordainduak, patenteak, bekak eta bestelako finantza ekarpenak.

Funtsezko akatsak argitaratutako lanetan

Egile batek antzematen badu beraren lan argitaratu batek akats esanguratsua edo zehaztugabetasunen bat duela, lehenbailehen jakinarazi behar dio argitaratu zuen erakundeari edo aldizkariaren zuzendariari, eta akatsa zuzentzen edo artikulua kentzen lagundu behar die. Zuzendariak edo argitaratu duen erakundeak baldin badakite argitaratutako artikulua batek akats esanguratsua edo zehaztugabetasunen bat duela, egilearen betebeharra da artikulua kentzea, zuzentzea edo zuzendariari originala zehatza dela frogatzeko ebidentziak ematea, ahalik eta azkarren.

Berdinen arteko berrikuspena

Egileek berdinen arteko berrikuspenean parte hartu behar dute, eta erabateko laguntza eman. Hala, datu primarioak, azalpenak eta baimenak eskatzen dituztenean, lehenbailehen erantzunen dute. Artikulua berrikusi behar dela irizten bazaio, egileak sistematikoki erantzun behar die ebaluazioen iruzkinei, puntuz puntu, eta aldizkariari originala berriz bidali, esleitutako epearen barruan.

4. ARGITARATZEN DUEN ERAKUNDEAREN EGINBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNA

Etikoak ez diren jokabideak kudeatzea

Jokabide bidegabekoa, iruzurrezko argitalpena edo plagioa egon dela uste edo frogatu denean, argitaratu duen erakundeak (Nafarroako Gobernuak), zuzendariarekin batera lan eginez, egoera argitzeko eta dagokion artikulua zuzentzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu. Horrek honako hauek hartzen ditu barne: lehenbailehen hutsen zerrenda argitaratzea, azalpenak ematea edo, kasu larrietan, artikulua kentzea. Artikuluetan jokabide bidegabekoa izan denean, argitaratzen duen erakundeak, Idazketa Kontseiluarekin batera, arrazoizko urratsak emanen ditu artikulua horiek argitaratzea saihesteko, eta ez du inolaz ere horrelako jokabiderik sustatuko edo onartuko.

Aldizkariaren edukia eskuratzea

Argitaratzen duen erakundeak hitzematzen du ikerlan akademikoak etengabe eskuragai egon direla eta gordeko direla, beste erakunde batzuekin elkarlanean. Orobat, berezko artxibo digitala izanen du, lan horiek eskuratzeko aukera bermatzeko.